

MIN IKUSEZINA

Zure ondoan oso txikia sentitzen naiz. Zure ondoan ez naiz babestuta sentitzen, ez naiz bakean sentitzen; beldurra sentitzen dut uneoro. Beroa eskaini beharrean, izozten nauzu. Zure ondotik ihes egin nahiko nuke, korrika egin; zuregandik urrun egoteko, egin dizkidazun zauriak sendatzeko, ni neu aurkitzeko, ni neu berriz maitatzeko eta, batez ere; lapurtu didazun bakearen bila joan egin ahal izateko. Non utzi duzu? Zurea dela uste duzu, ezta?

Malkoek nire burua iluntzen dute maiz. Iluntasunak itotzen dit eta bakar-bakarrik sentitzen naiz gela huts honetan. Oihukatzen dut, birikietan airerik gabe geratu arte, baina nire garrasien oihartzuna entzuten dut bakarrik. Ez dakit nola azaldu barnean sentitzen dudan mina, baina badakit ez dela normala; nire gorputzak arrazoiak dituela dar-dar eta beldurra sentitzeko zu ikustean, zu entzutean edota zu ikustean. Badakit ez dela ona, ez dela sana, baina amesgaizto bat besterik ez dela pentsatu nahi dut, laster esnatuko naizen amets soil bat, errealtateak ikaritzen nauelako.

Urteekin, hondoratzen joan egin naiz. Urteekin galdu egin naiz, eta orain, noraezean nago. Nire lagunuen falta sumatzen dut, nire familiarena, nire gauzena... Azken finean, ni neu miresten naiz. Non geratu da nire ausardia? Nire indarra? Nire kemena? Hondoratzen joan dira, bai, munstroak itotzen zidan bitartean. Bat-batean, egun batetik bestera irribarrea bidetik galdu dudala ohartu naiz; nire irribarrea, arima eta distira aldatu direla eta ispilura behin eta berriz begiratzuz gero, ez dut beste aldean dagoen pertsona ezagutzen. Galduta nago, bizitzen jarraitzeko indarra eta arrazoiak bilatuz.

Eta nazkatuta nago, ezin dudalako min hori gehiago jasan. Zu zarelako min horren errudun bakarra, eta ez: ez nago erotuta. Hasieran arazoa ni nintzela pentsatzen nuen, barru-barrutik nire irudimen hutsa zela sentitzen nuen. Baina zuk hori pentsaraztea egiten zenidan, ezta? Harrapatu zaitut, eta ez nauzu gehiago itsutuko; azkenean ikusi dudalako nolakoa zaren, zer nolako munstroa duzun barrutik eta zenbat min egiten duzun maite dizuten pertsoneri. Bai, maite zintudalako, baina ez zaitut gehiago maite; min egiten didaten pertsonak ezin ditudalako maitatu.